IKUSMIRAN 25

Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak

2026ko maiatza

25

iparhegoa
Ikasketa Sindikaletarako Fundazioa

Ikusmiran 25 | 2026ko maiatza
Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak

Aurkibidea

SAR HITZA 5

ONDORIO NAGUSIAK 6
- 1. Lau langiletik batek 1.600€ baino gutxiago kobratzen du, eta atalasea gainditzen ez dutenen herena emakumeak dira. 6
- 2. Sortzen den aberastasuna ez da modu orekatuan banatzen. 7
- 3. Langabeziak ez du gero eta konplexuagoa den lan harremanen errealitatea irudikatzen. Enpleguaren kalitatea da kezka iturri nagusia gaur egun. 8
- 4. Pobrezia erlatiboan zein larrian egoteko arriskuak gora egin du 2022tik 8
- 5. Bizitzaren etengabeko garestitzeak ez du etenik eta urtez urte metatuz doa. Langileon diru-sarreren gero eta zati handiagoa bideratzen dugu etxebizitza gastuetara edota eguneroko elikagaiak eskuratzeko. 8
- 6. Pribatizazio zein merkantilizazio prozesuek zerbitzu publikoen kalitatea ahultzen dute, gure eskubideen kalitatea mehatxatuz 9

LGS PROPIOAREN BEHARRA 10

LAN BALDINTZAK 12

LAN HARREMANAK 12
- LAN HARREMANEN ARRAKALEK IZEN-ABIZENAK DITUZTE: GENEROAK, JATORRIAK ETA KLASEAK BALDINTZATZEN DUTE PREKARIETATEA 12
- LANGABEZIA ARRAKALA SOZIALETAN EGONKORTU DIRA 13
- AFILIAZIOAREN INESTABILITATEA LANGILEEN PREKARIETATEAN BALDINTZATZEN DU 15

GATAZKA KOLEKTIBOAK 17
- GUTXIENEKO SOLDATA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN LEHEN LERROAN 18
- NAFARROA GARAIA, LAN HARREMANEN EGOERA 20

BIZI BALDINTZAK 21

BIZITZAREN GARESTITZEA 21
- Etxe bakoitzeko eta pertsona bakoitzaren gastua %23 igo da 8 urtetan 21
- Langileen antolakuntza eta borroka sindikalak egin ditu posible KPIaren araberako soldata-igoereak lan hitzarmenetan 22
- Bizitza garestitzen den bitartean, gure erosahalmena izoztuta dago; Pentsioen igoerak ez du inflazioaren eragina behar bezala estaltzen 23
- Inperialismo geopolitikoaren zeharkako kaltetuak gara; nahiz eta inflazioaren tontorrera oraindik ez garen iritsi 23

ABERASTASUNAREN BANAKETA 24
- Aberastasuna handitu arren, ezberdintasun sozialak areagotzen jarraitzen dute 25

POBREZIA ETA EZBERDINTASUN SOZIALAK 27
- Egiturazko arrakaletaz elikatzen da sistema 28

ZAINTZA 29
- Zaintzaren genero arrakalaren ondorioz emakumeak lanaldi bikoitza edukitzera behartzen ditu 29
- Zaintzen feminizazioa adin guztietara estrapolatzen da 29
- Emakumeek gizonek baino lau aldiz gehiago eteten dute lan-ibilbidea 31

OSASUNGINTZA 32
- Herritarren ia erdiak hiru hilabete baino gehiago itxaron behar du lehen zitara iristeko 32
- 3 ohe erabiltzen dira 1.000 biztanleko; 2008tik datuak okerrera egin du 32

ETXEBIZITZA 34
- Etxebizitzaren prezioa igoera esponentzialean doa 34
- Alokairua jabetza baino gehiago igo da: errentaren %37,7 erabiltzen da etxebizitza ordaintzeko 35
- Nafarroan emakumeek soldataren proportzio handiagoa erabiltzen dute alokairua ordaintzeko 36
- EAEn soldata garbiaren ia erdia erabiltzen dute etxebizitza ordaintzeko 36
- Etxegabetzeen hiru laurdena baino gehiago alokairuengatik izan da 37

SAR HITZA

Eskuartean duzuena 25. IKUSMIRAN azterketa da. Bertan langileon lan eta bizi baldintzak izan ditugu aztergai eta azterketaren helburua da egungo langile klasearen errealitatearen argazki ahalik eta osatuena egitea.

Testuinguru ezegonkor eta aldakorrean bizi gara non aldaketak bizkor gauzatzen diren. Azterketa honetan, ordea, begirada estrategikoa jarri nahi izan dugu, egiturazkoa den errealitatea lehen lerrora ekarriz. Beraz, egun langile klaseak dituen bizi eta lan baldintzak aztertu ditugu, etorkizuna oinarri horietatik eraikiko baita.

Bestalde, gure ahalegina izan da Euskal Herria bere osotasunean aztertzea, baina zatiketa politiko-administratiboak horretan ere ondorioak dakartza. Beraz, azterketa Hego Euskal Herrira mugatu behar izan dugu. Era berean, eremu administratiboen arteko metodologia bateratua ez edukitzeak, hainbat datu eremu administratiboen arabera aurkezten dira.

Besterik gabe, sar gaitezen gaiaren azterketan.

ONDORIO NAGUSIAK

Azken urtean jazotako gertakariek alarma eta kezka handia piztu dituzte –lehia geopolitikoak, gatazka belikoak, gerrak, genozidioak, esku hartze inperialistak, eta eskuin muturraren gorakada nabaria–. Mundua ardazten duen sistema kapitalista gero eta ezegonkorragoa da, bereziki langile klasearentzat. Izan ere, kapitalismoaren metaketak munduaren ordena sostengaezin bihurtu du krisi anizkoitz batean azalduta; Bidegabekerian eta zapalkuntza anitzetan, planetaren baliabideen ustiapen basatian, eta esplotazio orokorrean oinarritutako sistema da bizi duguna. Ez dira "gertatu" diren krisiak, eragin diren krisiak baizik. Kapitalismoak gutxi batzuen mesedetan jarduten dute, gainontzeko nahi eta beharrak alde batera utziz. Zoritxarrez, kapitalismoak zeozer inbidiagarria badu, egoera guztietan moldatzeko gaitasuna da. Horixe bera da, hain zuzen ere, kaltegarriena guretzako.

Euskal Herria ez da salbuespen uharte bat. Azkenengo urteko datuek hobekuntzak iradoki badute ere, lan baldintzen okerragotzea, soldaten erosahalmenaren galera eta etxebizitzaren garestitzea eguneroko errealitate bihurtu dira gure herrian. Prekarietatearen ugaritze aztarnak dira hauek.

Datu hauek ez dira joera isolatuen isla; eredu sozioekonomiko baten ondorio sistematikoak baizik. Enpleguen kantitateak hobera egin ahala, kalitatearen narriadurak eta bizi kostuaren igoerak, argi uzten dute hazkunde ekonomikoa gutxi batzuentzat dela. Lan egin arren pobrezia egoeran edo pobrezia arriskuan dauden pertsonen kopurua handitzen ari da, eta horrek agerian uzten du sistemaren muineko paradigma nagusia.

Testuinguru horretan kokatzen da, halaber, LGS propio baten beharra. Gaur egun indarrean dagoen gutxieneko soldata estatu mailan ezartzen da, eta ez du Euskal Herriko errealitate sozioekonomikoa aintzat hartzen; ondorioz, bizi kostuaren berezitasunak, etxebizitzaren garestitzea, lan merkatuaren egiturazko ezaugarriak alde batera uzten dira. LGSa handituz gero negoziazio kolektiboan eragina izango luke, beste soldaten igoera ere ekarriko bailuke; soldatak hobetzearen ondorioz aberastasunaren banaketa hobea lortzeko inflexio puntua da. Egoera sozioekonomiko honetatik irteteko lehenengo pausua izango litzateke langile klasearentzat.

LABek 1.600€ko LGS aldarrikatzen du, nahiz eta gehiengo soziosindikalarekin adosturiko dinamikatan 1.500€ den adostu dena, kopurua zehazteko ikuspegi ezberdinak daudelako. LAB sindikatuak 2024an Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata propioaren aldarrikapena 1.600 eurotan kokatu zuen. Kopuru hori Hego Euskal Herrian lanaldi osoko batez besteko soldataren %60ari dagokio, hala ezartzen baitute Europako Gutun Sozialak, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 131. Hitzarmenak eta 2022/2014 Europako Zuzentarauak.

Arestian esan dugun bezala, Ikusmiran honetan langile klasearen egungo lan eta bizi baldintzen azterketa egin dugu. Jarraian, azterketatik eratorri ditugun 6 ondorio nagusiak aurkituko dituzue:

1. LAU LANGILETIK BATEK 1.600€ BAINO GUTXIAGO KOBRATZEN DU, ETA ATALASEA GAINDITZEN EZ DUTENEN HERENA EMAKUMEAK DIRA

Kapitalismoak izan dituen krisi anizkoitzaren ondorioz, egungo testuinguruan enpleguak ez du bizitza duina garatzeko bermerik eskaintzen. Izan ere, prekarietate indizeari erreparatzen badiogu, 25 eta 64 urte arteko 2 herritarretik batek ez du diru-sarrera nahikorik modu duinean bizitzeko; HEHko Prekarietate indizea %49,01 da[1].

Prekarietatea sistemaren bizkarrezurra bihurtu da jada. Prekarietatea lan harremanen zutabeetan instalatzen ari dela baieztatzen duten joerak gero eta nabarmenagoak dira. Langabezia beheranzko joeran egon arren, 239.535 langile daUud 1.500€[2] baino baxuagoko soldatak dituztenak, bost langiletik bat. Era berean, 1.600 euroko atalasean heldu barik daude 305.484 langile; lau langiletik bat.

Azpimarratzekoa da Erregimen Orokorreko eta Etxeko Langileen erregimen Berezia hartuta, emakumeen %28,69 ez

1 Prekarietate indizea kalkulatzeko, soldata-egiturari buruzko lau urteko inkesta erabiltzen dugu, 4 urtetik behin argitaratzen dena. Horregatik, datu hau aurreko ikusmiran berdinean agertzen den datua da (2022koa), ezin baita urtero baldintza berdinetan neurtu. Hala ere, adierazgarria iruditzen zaigu, jakin badakigulako prekarietatea egiturazkoa dela, eta urte batetik bestera ez dagoela mugimendu handirik.

2 1.500€ gordin/hileko baino gutxiago kotizatzen dutenak

dela 1.500€ kobratzera iristen. Oro har, %35,62 ez da 1.600 euroko atalasera heltzen. Kopuru horretan, kontraturik gabe aritzen direnak edo etxeko lanetara emanda edo langabezian dauden emakumeak ez daude barnebilduta. Enpleguaren feminizazioaren ondorioa da hau. Sektoreka miatuz, emakumeak presentzia gehien duten enplegu-sektoreak zaintza eta garbiketarekin du zuzeneko harremana; egoitza arreta (emakumeak plantilla osoaren %87,2a izanik) eta garbiketa (%72,7a emakumeak izanik). Eta ezin dugu ahantzi etxeko langileak. Hauek dira, seguraski prekarizatuenak. Sektore honetan %96 emakumeak dira, eta horien artean %42 migratuak.

Hala ere, egoera horrek ez du ezkutatzen langile borrokaren bidez lortutako aurrerapauso esanguratsuak. Azken ikasturtean Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) propioa lortzeko bidean antolakuntza eta mobilizazio sindikalak eragin zuzena daukala.Izan ere, 2025ean greba gutxiago deitu baziren ere, parte hartzen handiagoa izan zuten. Joera hori 2026ko martxoaren 17ko greba orokorreraino iritsi zen, 105.000 langile batu zituena.

LGS propioa ezinbestekoa da egun. Izan ere, lan merkatua gero eta dualizatuago dagoen honetan, gure soldata egiturari erantzungo dion alternatiba egingarria da. Hau da, 1.500€ baino soldata altuagoko enpleguak suntsitzen ari diren bitartean –industrian gehien bat-, lan baldintza prekarizatuenak dituzten sektoreetan enpleguak sortzen ari dira –zerbitzuetan zehazki-. Horrek enpleguaren feminizazioaz gain, populazioaren prekarizazio eta pobretzea dakar. Eta zalantzarik gabe, LGS dugu hori gelditzeko tresna.

2. SORTZEN DEN ABERASTASUNA EZ DA MODU OREKATUAN BANATZEN

Azken hamarkadako krisiei aurre egiteko hartu diren erabakiak langile klasearen gainean utzi dute zama nagusia, eta ondorioak metatuz joan dira, gero eta prekarietate handiagoa ezaugarri duen sistema kapitalistaren baitan. Egoera egiturazkoa dela jakin badakigu, sistema sostengatzen duten botere-harremanek eta antolaketa ekonomikoak etengabe erreproduzitzen duten desoreka baten adierazpena.

Era berean, gutxien eta gehien dutenen arteko arrakala bere horretan mantentzen da. Azken urteetan BPG hazi bada ere, soldaten pisua BPGan jaitsi egin da, eta kapitalaren errentek —dibidenduak, interesak eta enpresa-irabaziak— pisu handiagoa hartu dute. Horrek zera esan nahi du; sortutako aberastasunaren zati gero eta handiagoa ez dela lan-errenten bidez banatzen, baizik eta metaketa kapitalistara nagusitzen dela.

Badakigu BPGa ez dela nahikoa aberastasuna neurtzeko. Hala eta guztiz ere, adierazle markagailu gisa balio digu. Kasu honetan, BPGan soldatak gero eta pìsu txikiagoa izatea tendentzia bilakatu da HEHan. Horrek zera esan nahi du: aberastasuna gero eta esku gutxiagoren artean banatzen da. Ondorioz, sortzen den aberastasunaren zati gero eta handiagoa ez da langileen poltsikoetara iristen soldaten bidez, eta kapitalak gero eta mozkin handiagoak jarraitzen du pilatzen.

Gini indizeak eta S80/S20 ratioak berdina baieztatzen dute. 20 urte daramatza aldaketa handirik jasan gabe. Aberastasuna handitzen den honetan, kontraesankorra eman dezake. Aberastasuna handitu eta langabezia jaitsi egiten da, baina gehien eta gutxien dutenen arteko aldea ez da murrizten.

Aberastasunaren banaketa justurik ez badago, ezinezkoa izango da bizitza duin baten oinarriak bermatzea. Langile klaseak sortzen duen gainbalioaz baliatzen da kapitala, aberastasuna metatzeko, egiturazko desberdintasunak murriztu, edota langileriaren bizi-baldintza duintzeko aukerak baztertuz.

Aberastasunaren birbanaketa funtzioa duen zerga politika ere kapitalaren interesen araberakoa da. Izan ere, presio fiskala baxua dugu, Europako herrialdeekin alderatuz (2024 urtean 11.788 milioi gutxiago jaso zen). Bestalde, lan errentak zergapetzetik eskuratzen du sistema fiskalak diru-sarreran gehien. Beraz, badago aukera diru publiko gehiago eskuratzeko, lan errentak gehiago zergapetu gabe, mozkinak beharko luketen zerga ezarriz gero.

3. LANGABEZIAK EZ DU GERO ETA KONPLEXUAGOA DEN LAN HARREMANEN ERREALITATEA IRUDIKATZEN. ENPLEGUAREN KALITATEA DA KEZKA ITURRI NAGUSIA GAUR EGUN

Lan harremanen erradiografia egiten badugu, egoera zaurgarrian daudenek egiturazko zapalkuntza pairatzen duten subjektuak direla ikus genezake, hala nola, gazteak, emakumeak eta migranteak. Aktibitate tasa jaitsi da, eta langabeziak genero arrakalan sakontzen du. Izan ere, emakumeen langabezia %8,98ra igo da, gizonezkoen %6,41kin alderatuta.

Jatorriaren arabera ikusita, argi geratzen da sistema arrazista kapitalista heteropatriarkalak herritar batzuk bereziki zapaltzen dituela, eta generoarekin uztartuta, kapitalak okerrago tratatzen dituen kolektiboak agerian uzten direla. EPAko datuei erreparatuz, atzerriko populazioaren langabezia %16,5era heltzen da (HEHko %7,64rekin konparatuta). Emakumeak, gainera, gizonezkoekin konparatuta %7 gehiago; gizon migratuen artean langabezia %13,7ra heltzen da, emakumeak aldiz, %20,1ra.

Ekonomia jardueretara jotzen badugu, industria da langabeziak gehien kolpatzen duen sektorea. Sektore hauxe da, hain zuzen ere lanpostu egonkorrenak eskaintzen dituen arloa (afiliazioaren %21,39ra jaitsi da). Aldiz, zerbitzuetan geroz eta langabezia gutxiago dago (afilizioaren %73,64). Hau ez da kasualitatea; sektore hau da, hain zuzen ere, enplegu prekario eta ezegonkorrenak dituzten baldintzak. Honek zera erakusten du; baldintza egonkorrak dituzten enpleguak suntsitzen ari dira eta prekarioak sortzen. Eta horrek, bizitzaren prekarizaziora bideratzen gaitu gizarte moduan. Horrez gain, langabeziaren igoera epe luzeko langabetuen hazkundearekin lotzen da, 12 hilabete baino gehiago lan bila daramaten pertsonak gero eta gehiago direlako, eta horrek erakusten du enplegu politika publikoek ez dutela behar bezala eragiten.

Gainera, hori gutxi ez eta EEEen (ERE) areagotze batean gaude. 2025ean 2014ko aurreko kopuruak gainditu dira, eta 3.000 langile baino gehiago izan dira eragindakoak, non egoerari benetako irtenbidea eman beharrean, ABEEE (ERTE) eta EEE moduko partxeak jartzen dituzten. Beti ere langile klasea ez den mesedetan.

4. POBREZIA ERLATIBOAN ZEIN LARRIAN EGOTEKO ARRISKUAK GORA EGIN DU 2022TIK

Arrakalak sistema sostengatzen duen adierazle ugariak dira. Langabezia jaitsi egiten den bitartean, pobrezia, arrakala sozialak eta ezberdintasunak mantendu egiten dira. Hau baieztatzeko AROPE tasa dugu. Pobrezia-arriskua neurtzen duen adierazle honek 2014tik arriskua handitu dela ziurtatzen digu. Hamaika urtetan ez du aldaketa handirik jaso, 2014 igo eta zifra ia berdinetan gelditu da (%12 - %18 artean).

Langile klaseak gero eta zailtasun handiagoak ditu hilabete bukaerara iristeko, 2025. urtean herritarren %40 zegoen egoera horretan. Horrez gain, pobrezia erlatiborako eta larrirako arriskua 2022tik handitu egin da.

5. BIZITZAREN ETENGABEKO GARESTITZEAK EZ DU ETENIK ETA URTEZ URTE METATUZ DOA. LANGILEON DIRU-SARREREN GERO ETA ZATI HANDIAGOA BIDERATZEN DUGU ETXEBIZITZA GASTUETARA EDOTA EGUNEROKO ELIKAGAIAK ESKURATZEKO

Gure bizitzak garatzeko beharrezkoak diren elementuak dira gehien garestitu direnak; etxebizitza eta elikagaiak. Gizakiaren erreprodukziorako funtsezkoak diren bi elementu horiek dira egun gehien ordaintzen ditugunak; behi haragia eta olioa eta koipeak %60 baino gehiago garestitu da. Bestalde, etxebizitza langileak pobretzeko arrazoi nagusietako bat da. Bataz beste, soldataren %35,8a bideratzen da etxebizitza ordaintzera eta, elikagaiak ordaintzeko %15,5 erabiltzen dugu. Beraz, gainerako soldata erdiarekin igaro behar izaten dugu hilabetea.

Azterketan xeheago ikusiko dugun bezala, 2023an 28.050 euroko bataz besteko soldata garbia edukita, 36 urte behar ziren etxebizitza ordaintzeko. Gaur egun, nahiz eta bataz besteko soldataren datua ez eduki, badakigu KPI EAEn %3,7 eta Nafarroan %2,7 igo dela, baina, etxebizitzaren m2/€ are gehiago igo da, %11 inguruan[3] zehazki. Langileriaren erosahalmenaren galera begi bistakoa da, oro har, soldatak ez baitira KPIaren arabera igotzen eta etxebizitza prezioak esponentzialki gora doaz.

3 EAEn % 10,4 eta Nafarroan % 11,4

6. PRIBATIZAZIO ZEIN MERKANTILIZAZIO PROZESUEK ZERBITZU PUBLIKOEN KALITATEA AHULTZEN DUTE, GURE ESKUBIDEEN KALITATEA MEHATXATUZ

Etxebizitza, elikadura osasuntsua, osasuna edota zaintza eskubide unibertsalak izan arren, indarrean dagoen eredu kapitalistak merkantilizatu eta pribatizatu egiten ditu, ahalik eta etekin zein errentagarritasun ekonomiko handiena ateratzeko.

Politika publikoek gero eta gutxiago babesten dute eredu publikoa. Ondorioz osasungintza eta zaintza lanen merkantilizazioa hauteman genezake. Osasungintza zerbitzuaren kalitatea gero eta kaxkarragoa da; Nafarroan, lehenengo kontsulten %44,8a 90 egun igaro ondoren izaten dira. EAEn, lehen kontsultek 56 eguneko atzerapena eduki dute, batez beste.

Bestalde, zaintza lanen feminizazioa eta arrazalizazioa bistakoa da. Genero eta arraza arrakalak zeharo zeharkatzen du. Etxeko langileen % 96 emakumeak dira eta horien artean %42 migranteak. Kontuan hartu behar dugu langile askok astean 60 ordutik gorako lanaldia egiten dutela, eta hortaz, zaintza lanen feminizazio eta arrazalizazioaz gain, lan prekarioenak egiten dituztela. Sektore hau da, hain zuzen ere, ekonomiaren funtzionamendurako funtsezkoa den lana egiten dutenak. Baina oraindik ez du gizartearen eta politika publikoen aldetik dagokion aitortza ekonomiko eta juridikorik jaso.

LGS PROPIOAREN BEHARRA

EHUko ekonomia saileko irakasleekin elkarlanean egindako ikerketa propio baten emaitzak ekarri nahi ditugu Ikusmiran honetara. Jarraian, azterketa horretatik eratorritako datu esanguratsuenak aurkituko dituzue. Era berean, nabarmendu behar dugu, azterketa berritzailea dela, hainbat kudeaketa eta elkarlanaren ondorioz, gizarte segurantzak berak emandako datuak baliatu baitira[4].

Ikerketa honetan 1.500 eta 1.600 euroko kalkuluak aurkituko dituzue; 1.500€ gordin/hileko eta 1.600€ gordin/hileko baino gutxiago kotizatzen dutenen zenbatekoa aurkeztuko da. Izan ere, 1.500€ko LGS aldarrikapen bateratu batetik datorren eskakizuna da. Bestalde, LABek 1.600 euroko gutxieneko soldata aldarrikatzen du, kopuru hori Hego Euskal Herriko lanaldi osoko batez besteko soldataren %60ari dagokiolako. Proportzioa, Europako Gutun Sozialak, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 131. Hitzarmenak eta 2022/2014 Europako Zuzentarauak ezartzen duten estandarrekin bat dator. Horrez gain, 1.600 euroko atalasearen azpitik kokatzen diren pertsonen kopurua are adierazgarriagoa da.

SOLDATAPEKO LANGILEAK

1.500 AZPITIK	**239.535** langile	Soldatapeko **langileen %21,55** (1.500 € atalasean)	1/5 **bost langiletik bat**
1.600 AZPITIK	**305.484** langile	Soldatapeko **langileen %27,49** (1.600 € atalasean)	1/4 **lau langiletik bat**

Ondorio orokor gisa, nabarmenduko dugu bost langiletik batek ez duela 1.500 euroko atalasea gainditzen, eta lau langiletik batek ez duela 1.600 eurora heltzen. Fenomeno hori, ordea, ez da sektore guztietan uniformeki gertatzen. Izan ere, zerbitzu sektorean metatzen da lanpostuen prekarietate-egitura eta horri esker uler daiteke, neurri handi batean, ondoren ikusiko dugun desberdintasunen mapa. Era berean, langile klasea arrakalatzen duten zapalkuntza anitzek LGSren atalasearen azpitik kokatzen dituzte egoera zaurgarrian dauden kolektiboak ere bai.

Batetik, **sexu-generoaren araberako azterketa egiten badugu**, LGSren atalasearen azpitik emakumeak gehiengoa dira. Izan ere, 1.500€ eta 1.600€ baino gutxiago kobratzen dutenen artean sektore feminizatuak dira gehiengoa, kasualitatetik urrun. Eta, zerbitzu sektore feminizatuak hroiek dira hazkunde handiena eduki dutenak (besteak beste, ostalaritza, garbiketa, zaintza, bestelako zerbitzuak) eta enplegu baldintza kaskarrenak eskaintzen dituztenak.

SOLDATAPEKO EMAKUME LANGILEAK

1.500 AZPITIK	**160.292** emakume soldatapeko	Soldatapeko **emakumeen %28,69** (1.500 € atalasean)
	79.243 gizon soldatapeko	Soldatapeko **gizonen %14,34** (1.500 € atalasean)
1.600 AZPITIK	**198.979** emakume soldatapeko	Soldatapeko **emakumeen %35,62** (1.600 € atalasean)
	106.505 gizon soldatapeko	Soldatapeko **gizonen %19,27** (1.600 € atalasean)

Emakume soldatapekoen %28,69k 1.500 euroko soldata gainditzen ez duen bitartean, gizonen proportzioa txikiagoa da (%14,34). 1.600 euroko soldata gordinarekin konparatzen badugu, atalasea are handiagoa da; emakume soldatapekoen %35,62k ez du 1.600 euroko atalasea gainditzen (gizonen kasuan %19,27 izanik). Horrek esan nahi du emakumeek gizonek baino ia bi aldiz probabilitate handiagoa dutela soldata baxuko segmentuetan kokatzeko. Sektore-bilakaerarekin lotuta, datu horrek argi erakusten du ekonomiaren tertziariziazio-prozesuak emakumeen lan-baldintza kaskarrak iraunarazten dituztela.

4 Ikerketan aztertutako populazioa Hego Euskal Herriko 1.111.272 soldatapekok osatzen dute (errejimen orokorreko eta etxeko langileen errejimena, abendua 2024). Kalkulatu dugu horietatik zenbatek duten 1.500€ edo gutxiagoko soldata. Kalkuluen errore-marjina %5ekoa da

Adinak ere badu bere garrantzia azterketa honetan. Izan ere, gehien bat 30 urtetik beherako herritarrek dute 1.500€ soldata eta 1.600€ko soldaten kasuan, logika berdina nagusitzen da. Hazkunde handiena izan duten zenbait sektore (arte, jolas, ostalaritza...) gazteen lehen enpleguak izan ohi dira. Sektore horiek dira, hain zuzen ere, baldintza kaskarragoak eskaintzen dituztenak.

SOLDATAPEKO GAZTE LANGILEAK

1.500 AZPITIK	**65.393** gazte langile	**%25,7** Gazteak dira[5]	**%32,24** Gazte taldean (erlatiboa)[6]	1/3 **ia hiru gaztetik bat**
1.600 AZPITIK	**77.616** gazte langile	**%25,4** Gazteak dira[7]	**%40,45** Gazte taldean (erlatiboa)	2/5 **Bost gaztetik bi**

Emakume gazteen artean (%35,71) arrakala are handiagoa da gizon gazteekin konparatuta (%28,86). 1.600 euroko atalasearen datuak begiratuta, are handiagoa da aldea; emakume gazteen artean %43,95eko da arrakala, gizonezkoenak %37. Adinaren eta generoaren gurutzatzen direnean prekarietate-arriskua nabarmen areagotzen da. Zerbitzu sektore-egiturak aztertuz gero, argi uler daiteke egoera hori: ostalaritza eta aisialdia dira gazteak gehien enplegatzen dituzten sektoreak, baina era berean soldata baxuenekin eta kontratu ezegonkorrenekin.

Jatorriaren araberako datuek are segmentazio nabarmenagoa erakusten dute. Hala, ostalaritza eta garbiketa sektoreetan migratzaileen presentzia altuena azaleratzen da.

EUSKAL HERRITIK KANPO JAIOTAKO SOLDATAPEKO LANGILEAK

1.500 € AZPITIK	**118.999** EHtik kanpo jaiotakoak	**%49,7** EHtik kanpo jaiotakoak	**%32,0** Migratzaile taldean (erlatiboa)[7]
1.600 € AZPITIK	**147.848** EHtik kanpo jaiotakoak	**%48,4** EHtik kanpo jaiotakoak	**%39,84** Migratzaile taldean (erlatiboa)[7]

Generoaren eta jatorriaren gurutzaketak are argazki larriagoa uzten du: emakume migratuen %41,7k ez du 1.500 euroko atalasea gainditzen. Eta, %50,12 ez da 1.600 euroko langara iristen; bitik bat. Sektore-azterketan ikusi dugunarekin lotuta, zerbitzuek izan dute hazkunde nagusiena, non emakume, migrante eta gazteak sistematikoki azaltzen diren. Era berean, gogora dezagun sektore horietan baldintza prekarioak nagusi direla.

Gaur egun indarrean dagoen gutxieneko soldatak ez du bermatzen bizitza duinik. Prezioen igoerak, etxebizitzaren garestitzeak eta elikagaien eta zerbitzuen kostuak gero eta handiagoak dira. Prekarietatea handitzen ari da, bereziki emakumeen, gazteen, migratuen, aniztasun funtzionala duten pertsonen eta sektore feminizatuetako langileen artean.

Lanbidearteko Gutxieneko Soldatak (LGS) gizartearentzat babes-dimentsio zabala du. Alde batetik, soldatapeko langileentzat zuzeneko eragina du, negoziazio kolektiboz gutxieneko erreferentziarik bermatua ez duten edo erreferentzia hori baino soldata txikiagoa duten jarduera guztietan ezartzen den heinean. LGSren zenbatekoak, honenbestez erabateko inpaktua du soldatarik txikienengan, baina horretaz gain, LGSren igoera batek, modu orokortuago batean soldata mailaren igoera ekarriko luke berekin: legezko lan-baldintzak baino handiagoak dituzten sektoreetan soldaten goranzko negoziazioa bultzatzen duena.

Bestalde, politika sozial eta ekonomikoak defenditzeko tresna ere bada. Zentzu horretan, aberastasunaren banaketa eta gizarte kohesiorako mekanismoa izanik, pobreziaren mugaren azpitik dauden pertsona kopurua murrizteko gaitasuna du. LGSren igoerak, berebiziko inpaktua izango du beti, sektorerik pobretu eta prekario hauetan: hala nola, zenbait sektore feminizatuetan eta herrialde pobretuetatik migratutako pertsonak nagusi diren sektoreetan. LGS propioarekin onuradunak langile klase guztia izango da, baina bereziki gazteak, migranteak eta emakumeak. Hauek baitira 1.500€ eta 1.600€ko atalasearen azpitik kokatzen diren subjektu gehienak.

5 1.500€ baino gutxiago kobratzen duten langileen artean
6 Gazte langileen artean 1.500-1.600 euro baino gutxiago kobratzen dutenak
7 1.600€ baino gutxiago kobratzen duten langileen artean


LAN BALDINTZAK

LAN HARREMANAK

LAN HARREMANEN ARRAKALEK IZEN-ABIZENAK DITUZTE: GENEROAK, JATORRIAK ETA KLASEAK BALDINTZATZEN DUTE PREKARIETATEA

Hego Euskal Herrian lanerako prest dagoen langile kopurua handitu da, baina horrek ez du esan nahi lan baldintzak hobetu direnik edo lana aurkitzea errazagoa denik. Gero eta herritar gehiago gara eta Euskal Herritik kanpo jaiotakoen kopurua ere handitu da. Lan merkatuan, ordea, ez ditugu baldintza berdinak, kapitalaren izaera zapaltzaileak arrakala bilakatzen baititu ezberdintasunak. Langabezia tasak behera egin arren, herritarrok ez dugu hobekuntzarik nabaritu. Emakumeen langabezia %9 igo egin da (10.900 emakume gehiago lan bila), eta gizonen artean, aldiz, behera egin du. Gainera, datuek erakusten dute gero eta pertsona gehiago daudela aktibo: batetik, 17.200 biztanle gehiago daudelako eta, bestetik, inaktibo zeuden askok lan bila hasi direlako. Aldi berean, jubilazioagatik inaktibo direnak ugaritzen ari dira, ikasketengatik inaktibo daudenak ere gora doaz, eta etxeko lanetara dedikatuta "inaktibo" zeudenak gutxitzen ari dira. Kasu honetan, ahantzi gabe emakumeak direla gehienak.


Etxeko lanetara emanda dauden emakume kopuruak ere behera egiten jarraitzen du. Kasu honetan, lan bikoitza izango dute, hala nola, etxean eta etxetik kanpo. Izan ere, bizi unitatearen diru-sarrerak nahikoak ez direnez, diru-sarrerak handitzeko helburuarekin egin dute trantsizioa lan merkatura. Eta jubilatuta dauden emakumeak kentzen baditugu, "inaktiboen" %38,06 etxeko lanetan aritzen dira. Hau da, hamar emakume inaktibotik lau etxeko lanetara emanda dago.



Iturria: INE

Argitaratu diren azken estatistiketan, aldaketa zantzuak atzematen dira. Izan ere, emakume gutxiago dira lan merkaturako trantsizioa egin dutenak, eta etxeko lanetan jardutea edota ikasketak egitea erabaki dute. Egoera isolatua edo joera aldaketa den baieztatzeko goiz da oraindik, baina enpleguetan eskaintzen zaizkien baldintza prekarioek zerikusia izan dutela pentsa liteke.

EMAKUME INAKTIBOAK




Iturria: INE

Langabeziaren datuak sektoreka aztertuta, aurreko urtetik gora egin du lan bila dauden pertsonen kopuruak; beraz, langabetu gehiago daude. Industrian langabeziak gora egin du; lehen sektorean eta eraikuntzan, berriz, %81,25 eta %40 jaitsi da, eta zerbitzuetan jaitsiera txikiagoa bada ere, kopuruz handiagoa da (5.600 langabetu gutxiago). Langabeziaren igoera epe luzeko langabetuen hazkundearekin lotzen da, 12 hilabete baino gehiago lan bila daramaten pertsonak gero eta gehiago direlako. Horrek erakusten du enplegu politika publikoek ez dutela behar bezala eragiten.

LANGABEZIA ARRAKALA SOZIALETAN EGONKORTU DIRA


Hego Euskal Herrian gero eta herritar gehiago gara, 2024an maximo historikoetan egon ginen, 2,5 milioi biztanle baino gehiago izatera iritsi baikinen. Eta 2025 amaieran HEHko biztanleriaren ia erdia, 1,3 milioi hain zuzen, emakumeak ziren. Hala eta guztiz ere, emakumeak populazioaren erdia izan arren, populazio aktibo diren edo lan bila ari diren langileen erdia baino gutxiago dira, sistema kolonial kapitalista heteropatriarkalak sortzen dituen egiturazko arrakalek eta politika publikoek oraindik konpontzen ez dituzten desberdintasunek eraginda. Langabezia tasaren arabera, enplegua hobera egin duela dirudien arren, datuek erakusten dute emakumeen langabezia igo egin dela (%8,98ra). Beraz, egungo lan harremanek emakumeak zokoratzen dituztela agerian gelditzen da datuokin, zigor gisa irudikatzen duguna.

LANGABEZIA TASA HEGO EHN



Iturria: INEren Biztanleria Aktiboaren Inkesta, guk egina

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA




Iturria: INEren Biztanleria Aktiboaren Inkesta, guk egina

Erregistratutako langabeziari dagokionez, kontuan hartu behar da herritar batzuk ezin direla zerrenda horretan inskribatu, izan ere, Espainiako legeek ez dietelako aukera ematen. Estatuak Espainiar nazionalitatea ukatzerakoan ezin dute bizitza duinik garatu (lan egiteko baimenik ez, laguntzak jasotzeko baimen eza, hezkuntza eta osasungintza publikora joatearen ukapena...).

Langabeziaren bilakaerak jarrera ziklikoak ditu, baina azken urteetan antzeko kopuruetan mantendu da. Generoaren arabera, emakumeak dira langabezia erregistratuan gehiengoa, 80.000 mantendu direlarik. Gizonen langabezia, berriz, egonkorragoa da eta beheranzko joera adierazten du.


ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA GARAPENA. HEGO EH



GRAFIKA HONEN ESKALA MOLDATU BEHAR IZAN DUGU SARTU AHAL IZATEKO

Iturria: guk egina, SEPEko datuekin.

ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA GARAPENA. HEGO EH



GRAFIKA HONEN ESKALA MOLDATU BEHAR IZAN DUGU SARTU AHAL IZATEKO


Iturria: guk egina, SEPEko datuekin.

AFILIAZIOAREN INESTABILITATEA LANGILEEN PREKARIETATEAN BALDINTZATZEN DU

Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek erakusten dute urteroko zikloak errepikatzen direla eta gorabeherak gero eta nabarmenagoak dira. Generoaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko aldea argia da. Izan ere, biak gora doazen arren, emakumeen kontratuetan behin-behinekotasun handiagoa dago eta horrek afiliazioaren ezegonkortasuna areagotzen du.


2022ko lan erreformak kontratu moten banaketan oreka bilatu nahi zuen —behin-behinekoen pisua jaitsi eta aldizkako finkoen eta mugagabeen garrantzia handituz— baina ez zuen emaitza egonkorrik lortu, ez behintzat genero arrakalari dagokionez. Emakumeen %43,9k baino ez dute jardunaldi osoko kontratu mugagabea, gizonen %69ren aldean –hirutik bi suposatzen duena–. Jardunaldi partzialeko kontratuak emakumeen artean %25,3 dira, gizonen %11,5en aldean. Datu hauek Erregimen Orokorreko langileei bakarrik dagozkie, eta ez dituzte barne hartzen nekazaritza eta etxeko langileen sistema bereziak, azken hauetan emakumeak nagusi direlarik eta askotan jardunaldi partzialarekin edo lan merkatu ezkutuaren baldintzetan.

AFILIAZIO-EHUNEKOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA



Iturria: Espainiako Estatuko Gizarte Segurantza
*Datu hauek Erregimen Orokorrean afiliaturiko langileenak dira
(nekazaritza eta etxeko langileen erregimen bereziak ez ditugu barneratu)

ETXEKO LANGILEEN AFILIAZIO GARAPENA. HEGO EH




Iturria: guk geuk egina, Espainiar Gizarte segurantza datuekin

Afiliazioa adinaren arabera aztertuta, asko handitu da 60-64 urte arteko afiliatuen kopurua: 2012.urteko afiliazioaren ia bikoitzak ditu gaur egun 60-64 urte. Era berean, gaur egungo afiliatuen ia erdia 50 urtetik gorakoa da. Errealitate honek ekarri du osasun arazoen igoera eta epe labur edo ertainean langile askoren jubilazioa.

Sektoreka, zerbitzuen pisua etengabe handitzen ari da eta industriarena jaisten. Horrek gorago aipatutako afiliazioaren

zikloa areagotzen du. Izan ere, zerbitzuetan aurkitzen ditugun kontratu gehienak behin-behinekoak dira eta hori da, zehazki, afiliazioaren zikloa elikatzen duena (zeinak, Irailean eta Urtarrilean langabeziak gora egiten duen beti). Hori gutxi balitz, zerbitzuak Erregimen Orokorreko afiliazioaren %73,6 osatzen dute. Horrek zera esan nahi du; Erregimen Orokorrean pixu gehiena duen sektoreak, baldintza kaskagarrienak dutenak dira. Zerbitzuetan oinarritutako ekonomia eredua nagusi da gurean, lan baldintza prekario zein ezegonkorrak eskaintzen dizkigutenak. Honek, herri gisa besteekiko menpekotasunak handitzen du, burujabetzatik aldenduz.


ERREGIMEN OROKORREKO AFILIZAZIOA SEKTOREKA
%. HEH 2024



Iturria: guk egina, EGSDN datuekin.

Enplegu erregularizazioei dagokienez, 2025ean ABEEE[8] kopurua gutxitu da, bereziki kontratuen etenari lotutakoak. Baina jardunaldi murrizketak eta kaleratze kolektiboak gora egin dute. Pandemia ondoren beheranzko joera izan arren, oraindik pandemia aurreko mailaren gainetik gaude, eta 2025eko egoera ezegonkorra —muga-zergekin lotutako testuingurua barne— eragin zuzena izaten ari da. EEEei[9] dagokienez, 2025ean 2014ko aurreko kopuruak gainditu dira, eta 3.000 langile baino gehiago izan dira eragindakoak. Arrazoi ekonomikoengatik bideratutako espedienteak gutxitu diren arren, produkzioari lotutako kaleratzeak nabarmen gehitu dira.

KALERATZE KOLEKTIBOEN ERAGINPEAN DAUDEN LANGILEAK, EMANDAKO ARRAZOIAREN ARABERA



Iturria: Guk egina, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren datuekin

8 ABEEE: aldi baterako enplegu erregularizazioa (ERTE)
9 EEE: Enplegua erregulatzeko espedientea (ERE)


GATAZKA KOLEKTIBOAK

AZKEN URTEKO GREBA DEIALDIETAN PARTE HARTZAILE GEHIAGO EGON DIRA.

Soldatapeko enpleguaren esparruan lan eta bizi baldintzen aldeko borroka bizia dago. Horren erakusle da lantokietan egiten diren greba deialdi zein mobilizazioak. Jarraian dauden grafikoek greba orokorrerako deialdien emaitzak jasotzen ez badituzte ere, langileen parte hartzea handituz doa.

EAE-ko greba deialdiek izaniko parte hartze zabala azpimarratzekoa da. Izan ere, 2025.urtean greba deialdi gutxiago egon arren, parte hartzeaile gehiagok egin dute greba, eta deialdi gutxiago egon arren, lan egn gabeko egun gehiago zenbatu dira. Datu hauetan eragina izan dezake enpresa batzuetan egoniko greba luzeak, Maderas Llodio kasu, irailaren 22az geroztik greba mugagabean baitaude.


EAEKO GREBAK, 2012-2025



(*) 2025ko urrira bitarteko datuak

Iturria: LHK

NAFARROAKO GREBAK, 2012-2025



(**) Greba orokorrak ez daude barneratuta greba kopuruan

(***) 2022tik aurrera, greba orokorretako parte hartzaile zein lan egin gabeko egun kopurua barnebiltzen ditu.

Iturria: espainiar estatuko lan eta gizarte ekonomiako ministerioa


GUTXIENEKO SOLDATA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN LEHEN LERROAN

LAB sindikatuarentzat Gutxieneko Soldata izan da borroka nagusia ikasturte honetan zehar eta negoziazio kolektiboan lehen lerroan kokatzea lortu duela azpimarratu behar dugu. Gehiengo sindikalaren iniziatibaz eta babes sozial handiarekin egindako greba orokorraren testuinguruan hainbat akordio ixtea lortu genuen, zeintzuetan 1.500€ko gutxieneko soldata lan hitzarmenetan jasotzea lortu dugun. Horren adibide dira Bizkaiko grafikagintza edota EAEko kolektibitateetako lehen hitzarmena; kudeaketa zuzeneko jangelatako akordioa. Beraz, hainbat borroka sindikalen bultzada ekarri zuen greba orokorrak, batik bat 1.600€ azpiko soldatan kokatzen diren sektoreentzat.

EAEKO ERAGINPEKO LANGILEAK

Langile kopuruari dagokionean, igo egin da estaldurapean daudenak, baina afiliazioarekiko alderatzen badugu, azken urtearekiko proportzioa txikitu egin da. Hau da, gero eta langile gehiago lan hitzarmen baten estaldurapean egon arren, afiliazioak gora egin duenez, estaldurapean dagoen afiliatuen proportzioak behera egin du azken urtean. Izan ere, 2024ean afiliazioaren %60 estaldurapean zegoen eta 2025ean %57,22ra jaitsi da. Gauza bera gertatzen da soldatapeko langileekin, 2024an %76 estaldurapean zegoen eta 2025ean %75,08. Horietatik % 44,35 dira emakumeak eta gainerako % 56,7a gizonak.

EAEKO LAN HITZARMENEN ESTALDURA, 2012-2025



Urte bakoitzeko abenduko datuak.
Iturria: guk egina, LHK-ren
eta espainiar estatuko
Gizarte Segurantzaren datuetatik

LAN HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEAK SEXU-GENEROAREN ARABERA (2025)

ETXEKO LANGILEEN %58A HITZARMENEN BIDEZ ERREGULATU GABE.


EAE-n soldatapeko langileen %5,93k ez digu hitzarmen bidez erregulatuak bere lan baldintzak. Bada multzo horren barnean, %58 etxeko langileak dira. Gogora dezagun sektore feminizatua dela eta ezkutuko ekonomian lanean dihardutela migratzaile asko. Askoz euren egoera erregularizatu gabe izanik, egoera horretaz baliatzen da kapitalismoa aberastasuna pilatzen jarraitzeko.

EAE-N ENPRESA MAILAKO HITZARMENEN ERAGINPEAN DAGOEN LANGILE KOPURUAK GORA EGIN DU, AZKEN URTEETAKO JOERA APURTUZ.

Azken urtean sektore mailako hitzarmen kopurua jaitsi egin da. Eskuartean ditugun datuak urte amaierakoak dira eta estaldura tasak urtero egiten du behera garai honetan. Izan ere, urte amaieran hainbat hitzarmenen indarraldia bukatzen da. 2025 bukaeran, besteak beste, honako hitzarmen sektorialek indarra galdu eta negoziazioa hasi zuten: Araban

metalaren merkataritza, elikadura industria, ardogintza eta metalgintza; Bizkaian elikadura merkataritza, gasolindegiak eta metalgintza, eta Gipuzkoan grafikagintza, okintza, transitarioak, ehungintzaren merkataritza, elikadura industria eta merkataritza, arrainen eta itsaskien handizkariak edo papergintza. Gainera, hainbat hitzarmenek (metalgintzak esaterako), langile kopuru handia barnebiltzen dute, eta horrek eragin handia dute estaldura tasa jaistean.

HITZARMENEN ERAGINPEAN DAUDEN LANGILEEN KOPURUA, SEKTORE ETA ENPRESA HITZARMENEN ARABERA. EAE (2012-2025)




Iturria: LHK

HITZARMENEN EREMUA AZTERTUZ, JOERA APURKETA MANTENTZEN DA ETA IGO EGIN DA ESTATU MAILAKO HITZARMEN BATEN ERAGINPEAN DAGOEN LANGILE KOPURUA.

Kasu honetan ere, nagusitzen zen joera apurtu da azken urteko datuen arabera; izan ere, estatu mailako hitzarmenen eraginpean dagoen langile kopuruak gora egin du, herrialde zein autonomikoen babespean daudenen kopuruak behera egin duen bitartean.

2013ko lan erreformaren ondorioz hitzarmen estatalek herrialdekoen gainetik lehentasuna hartzeak lan harremanen estatalizazioan areagotzea ekarri zuen. LAB sindikatuak hasieratik borrokatu zuen herrialdeko hitzarmen sektorialen alde, eta borroka horri esker egun, bertako hitzarmenek lehentasuna izatea lortu dugu. Edonola ere, lan harremanen estatalizazioa ez da geratu. Batetik, legez bertako hitzarmenek lehentasuna izateak ez du automatikoki bertako hitzarmenen indarraldia berreskuratzea ekarri. Hitzarmenez hitzarmen borrokatzen ari garen afera bat da, eta azken urteetan bertako hitzarmenen areagotzea ekarri duen borroka izan da. Bestetik, lan harremanak estatalizatzeko moduak askotarikoak ari dira izaten, ez soilik hitzarmen sektorial estatalen bidez. Izan ere, patronalak hainbat eremu bertako hitzarmen sektorialetatik atera eta beste hitzarmen estatal batzuei lotu zatzaizkio, esaterako, jatetxe-kate modernoetan, bertako ostalaritzako hitzarmenetik ateraz.

HITZARMENEN ERAGINPEAN DAUDEN LANGILEEN KOPURUA, ANBITOAREN ARABERA. EAE (2012-2025)




Iturria: LHK

NAFARROA GARAIA, LAN HARREMANEN EGOERA

LAN HITZARMENEN ETA ERAGINPEKO LANGILEEN KOPURUAK BEHERA EGIN DU.

Lehenik eta behin, argitu behar da azken bi urteetako datuak behin behinekoak direla. Beraz, datuok erakusten duten argazkia ere behin behinekoa dela ulertu behar dugu. Datu hauen arabera, azken bi urteetan lan hitzarmen gutxiago daude eta, ondorioz, langile gero eta gutxiago daude lan hitzarmenen eraginpean.


Nafarroan, EAE-n bezala, hitzarmen askok galdu du bere indarraldia 2025 bukaeran. Esaterako, egurgintzak, bulegoak, optiken merkataritza, metalaren merkataritza, ostalaritza edo nekazaritza eta abeltzaintza. 2026An hitzarmen horietako guztietako langileentzat hobekuntzak eta hitzarmen duinak lortzeko borrokan jarraituko dugu.



*Behin behineko datuak
Iturria: NASTAT

ESTALDURAPEAN DAGOEN LANGILEEN %85 ENPRESA EREMUA GAINDITZEN DUEN HITZARMENA DU NAFARROAN

Lan hitzarmenen esparrua aztertzen badugu, enpresa mailako zein enpresa gainditzen duten hitzarmenen eraginpeko langile kopuruak egin du behera. Hala ere, bien arteko proportzioa antzeko balioetan jarraitzen du: enpresa mailako hitzarmen baten eraginpean langileen % 15 dago, enpresa gainditzen duen hitzarmen baten estaldurapean % 85 dagoen bitartean. Beraz, kopuruak behera egin arren, eremu zabalagoetako hitzarmenak nagusi izaten jarraitzen dute. Kasu honetan, eremu zabal horren baitan dauden estatu, probintzia edota sektore mailak ezin dira bereizi. Kasu honetan ere, EAEn gertatu bezala, Nafarroan ere urte amaieran sektoreko hainbat hitzarmenek indarraldia galdu dute eta 2026an negoziazioak hasi dira.




Iturria: LHK

BIZI BALDINTZAK

BIZITZAREN GARESTITZEA

ETXE BAKOITZEKO ETA PERTSONA BAKOITZAREN GASTUA %23 IGO DA 8 URTETAN


Bizi unitateen kontsumoari erreparatzen badiogu, 2025ean EAEko udalerrietako erosketa-saskiaren urteko kostua 6.259€-6.562€ (pertsona/urteko) artekoa da, bataz-beste. Etxe bakoitzeko eta pertsona bakoitzaren gastua %23 igo da 8 urtetan. Ondasun multzoen artean elikagaiak eta edari ez alkoholdunen prezioa igo da gehien.



Iturria: XXX

Ondoren, edozein herritarren erosketetan ohikoak diren oinarrizko produktuak bildu ditugu, eta bakoitzaren KPIaren bilakaera metatua aztertu dugu 2020ko abendutik 2026ko otsailera arte. Datuetan ageri da produktu horiek gutxienez %20 garestitu direla, eta zenbait kasutan igoera hori askoz handiagoa izan dela. Arrautzak dira adibiderik esanguratsuena: Nafarroan %125,5 eta EAEn %89,3 garestitu dira azken 6 urtetan.

OINARRIZKO ELIKAGAIEN GARESTITZEA. 2020-2026 (%)		
	ALDERAKETA 2020-2026 (%)	
	Nafarroa	EAE
Ogia	%24,1	%20,4
Behi haragia	%61,4	%63,3
Ardi-haragia	%44,8	%39,7
Arrain fresko eta kongelatua	%30,2	%35,7
Arrautzak	%125,5	%89,3
Esnea	%46,3	%46,2
Olioak eta koipeak	%61,0	%68,3



Iturria: guk geuk egina, INEren datuekin

Datu horiek argi erakusten dute oinarrizko elikagaien prezioak etengabe eta modu nabarmenean igo direla, eta horrek eragin zuzena duela langileen eta pentsiodunen erosahalmenean. Batik bat, soldata txikiak dituztenei; izan ere kolektibo horiek beren diru-sarreren proportzio handiena elikaduran gastatzen dute.

Gastu-saski baten estimazioa kalkulatzen badugu, hau da, pertsona batek zenbat gastatzen duenaren hurbilpen bat kalkulatzen

badugu, prezio baxuetara joz, pertsona bakar batek 1.160€ gastatzen ditu. Estimazio arrunta 1.630€koa da. Kontuan hartuta bost langiletik batek ez dela 1.500€ko soldata oinarrira iristen, hilabete amaierara iristeko zailtasunak gero eta nabarmenagoak dira. Are nabarmenagoak, menpeko pertsonen ardura duten herritarren artean.


GASTU-KATEGORIA[10]	ESTIMAZIO BAXUA	ESTIMAZIO ARRUNTA
Etxebizitza alokairua	550€	835€
Elektrizitatea + ura + gasa	80€	110€
Elikagaiak (pertsona bat)	280€	320€
Garraioa (garraio publikoa)	50€	70€
Komunikazioa (tel. + internet)	40€	55€
Osasuna eta higienea	50€	80€
Arropa (hileko batez best.)	60€	80€
Ustekabeko gastuak	50€	80€
GUZTIRA	1.160€	1.630€

Eustat, EMAL 2024, merkatuko tarifak.

LANGILEEN ANTOLAKUNTZA ETA BORROKA SINDIKALAK EGIN DITU POSIBLE KPIAREN ARABERAKO SOLDATA-IGOEREAK LAN HITZARMENETAN

Langileen antolakuntza eta borroka sindikalari esker lortu dira KPIaren araberako soldata-igoerak. Negoziazio kolektiboaren bidez adostutako eguneratze horiek dira hurrengo grafikoetan ikus daitezkeenak. Hala ere, KPIaren metaketa kontuan hartuta, argi dago soldaten igoerak ez direla nahikoak bizitza duin bat bermatzeko. Bizitzaren etengabeko garestitzeak erosahalmena murrizten jarraitzen du, ahalbidetasunari ateak itxiz. Galdutako tartea berreskuratzeko bide luzea dago oraindik.

ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK ETA KPIA





10 Pertsona bakar baten gutxieneko gastu-saski estimatua Hego EHn (2024-2025). Estimazioa kontserbadorea da: ez dira aintzat hartzen aisialdi-gastuak, bidaiak, aurrezkia, etab.

BIZITZA GARESTITZEN DEN BITARTEAN, GURE EROSAHALMENA IZOZTUTA DAGO; PENTSIOEN IGOERAK EZ DU INFLAZIOAREN ERAGINA BEHAR BEZALA ESTALTZEN

Bizitza garestitzen den bitartean, gure erosahalmena izoztuta dago. KPIak gora egiten jarraitzen du —EAEn %3,7 eta Nafarroan %2,7— eta 2020tik metatutako igoera %23,6koa da. Hainbat hedabideek esaten dute EAEko batez besteko soldata 2.744 eurokoa dela, baina otsailean atera genuen ikerketak adierazten du, 300.000 langilek 1.500€ soldata oinarria baino gutxiago kobratzen duela. Beraz, ondorioztatzen dugu aberastasunaren banaketa ez dela ematen, eta zehazki, gero eta arrakala handiagoa dagoela. Izan ere, soldatak igotzen ez badira baina KPIa geroz eta altuagoa bada, bizitzaren garestitzea konklusio sinple bat besterik ez da.

Hurrengo grafikoetan pentsio kontribuzioen erosahalmenaren galera ikusi genezake. Lehenengo grafikoetan beraien gorabeherak paraleloki, zenbait kasutan pentsioak KPIa baino altuago kokaturik. Eta bigarrenean, KPIa bera metatua ikusten dugu, eta nola pentsionistek erosahalmena galtzen jarraitzen duten. Marra eta zutabe artean dagoena da, hain zuzen ere, pentsionistek galdu duten erosahalmena.





Iturria: INE

INPERIALISMO GEOPOLITIKOAREN ZEHARKAKO KALTETUAK GARA; NAHIZ ETA INFLAZIOAREN TONTORRERA ORAINDIK EZ GAREN IRITSI

2025ean prezioek % 2,2-3,5 arteko hazkundea izan dute, inflazio zantzuak agerian geldituz. 2024ean baino % 2,9 garestitu da. Funtsean, Ekialde Hurbileko gerrak inflazioa eragin du petrolio eta gasaren prezioak igoz, lehen momentutik. Horrek gasolioari eragin dio gehien bat, bi aste eskasetan 34 zentimo igo baita litroa EAEn. Astebeteko epean 17 zentimo egin du gora gasolinaren litroak. Nafarroan, aldiz, gasolioa % 20 igo da eta gasolina % 10 astebetean, gutxi gora behera. Energia-kostuen igoera horrek argiaren fakturan eta ekoizpen-kostuetan izango du zuzeneko eragina. Gatazka luzatzen bada, kostuen igoera orokor baten aurrean egongo garela pentsatzekoa da.


ABERASTASUNAREN BANAKETA

LAB sindikatuarentzat BPG aberastasuna neurtzeko adierazle egokia ez izan arren, aukera ematen du alderaketak egin eta hainbat ondorio ateratzeko, eredu honen zenbait gabezia agerian utziz. Aberastasuna banatzeko bi bide nagusi hauek daude: lan errentak eta politika fiskala. Atal honetan, biak landuko ditugu.

Lehenik eta behin, lan errentei erreparatuko diegu. Hurrengo grafikoan soldaten pisua BPGean duen pisua ikusten da. Grafikoan ikus daitekeen bezala, BPGk gora egiten jarraitu arren, soldaten pisuak ez du proportzio berean gora egiten; hortaz, ondoriozta dezakegu, soldaten bidez banatzen den aberastasuna gero eta txikiagoa dela. Kapitalak mozkinak pilatzen jarraitzen du, langileon soldaten bizkar, aberastasuna modu orekatuan banatu beharrean.

Kasu honetan, Europar Batasunean eta Espainiar estatutan 2010 urtetik joera ezberdina izan duen arren, egoera ekonomikoen ondorioz, soldatek BPGean izan duten pisua antzeko ehunekotan dabil, eta azken urteetan gora egiten, Hego Euskal Herrian behera egiten jarraitzen du eta 2010 urtetik joera behera egiten jarraitzen du % 49tik % 46ra hurbiltzen ari garela. Aberastasunaren banaketa desorekatua adieraziz.

SOLDATEN PISUA BPGEAN. BILAKAERA (%)




Iturria: Guk egina, EUROSTAT, EUSTAT eta Nastat-en datuekin

Hurrengo grafikoan fiskalitateari erreparatuko dio. Zerga sistema justua eta progresibo edukitzea ezinbestekoa da, aberastasunaren banaketa eraginkorra izan dadin. Alde batetik, ekarpenen bitartez egoera zaurgarrienetan dauden herritarrak babesteko eta beharrezkoak diren zerbitzu publikoak bermatzeko balio dute. Bestetik, zerga sisteman dauden zerga mota ezberdinen bitartez, eta zerga ezberdinek duten garrantziaren arabera, aberastasun gehien duen pertsonek ekarpen handiagoa egiteko erabilgarria da.

Jarraian agertzen den grafikoan HEHren eta Europar Batasunaren hainbat herrialderen presio fiskala agertzen da, BPGarekiko duten pisua %tan. Gure presio fiskala % 8,1 puntu txikiagoa da bataz bestekoarekin alderatuta, eta EBko herrialde guztiekin alderatuta, presio fiskal txikien duten herrialdeen artean aurkitzen da HEHa.

PRESIO FISKALA EUROPAN, BPGREKIKO %TAN (2024 URTEA)




Iturria: Geuk egina Eurostat, Eustat, Nastat
eta Espainiako Estatuko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuekin (EEGSDN)

ABERASTASUNA HANDITU ARREN, EZBERDINTASUN SOZIALAK AREAGOTZEN JARRAITZEN DUTE

2030 agendaren lehenengo helburua pobrezia murriztea da. Hori, ordea, ez da lehentasuna kapitalismoan, eredu horrek ezberdintasun sozial existitzea ezinbestekoa baitu, bizitza eta kapitalaren arteko etengabeko gatazkan. Datuetan ikus daitekeen bezala, ezberdintasuna adierazten duten S80/S20 ratioa eta GINI indizeen balioa mantendu edo okerrerantz egin dute.

Alde batetik, S80/S20 ratio aztertuko dugu. Ratioa desberdintasun-adierazle bat da, eta diru-sarrera handienak dituen biztanleriaren %20ren eta diru-sarrera txikienak dituen biztanleriaren %20ren arteko alderaketa egiten du. Gero eta balio handiago eduki, orduan eta desberdintasun handiagoa egongo da errentaren banaketan. Bestalde, GINI indizea populazio baten barruan diru-sarreretan dagoen desberdintasuna kuantifikatzen duen neurri ekonomikoa da. Kasu honetan, geroz eta baxuago egon, geroz eta desberdintasun gutxiago egongo da.




Guk geuk egina EAPNko datuekin

Bi kasuetan, ikus genezake balioak mantendu egiten direla. Ia hogei urtetan ez da mugimendurik hauteman eta horrek arrazoi garbi bat du; aberastasunaren banaketa justua ez da ematen. Izan ere, BPG gora doan heinean, ezberdintasun adierazleak mantendu egiten dira. Baita pobrezia adierazleak ere; are okerrago, okerrerantz jo dute.

POBREZIA ETA EZBERDINTASUN SOZIALAK


AROPE tasak hiru dimentsio uztartzen ditu; pobrezia-arriskua, gabezia material larria eta etxeko lan intentsitate baxua. Horrela, gizarte-bazterkeriaren ikuspegi multidimentsionala aplikatu genezake. Zifra gero eta handiago izan, biztanleriaren gehiengoa hiru irizpideetako bat betetzen duela esan nahi du. 2014ean baino ezberdintasun handiagoa dagoela ondorioztatu genezake. Pobrezia tasan adierazten den bezalaxe.



Iturria: Guk geuk egina EAPNko datuekin


Dena hobera doala sinetsarazi nahi diguten bitartean, errealitatea beste bat dela erakusten dute datuek: Aberastasuna sortzen ari da, langabezia jaisten baina. Era berean, pobrezia, arrakala sozialak eta ezberdintasunak mantendu egiten dira, aberastasuna gutxi batzuen poltsikoetara bideratzen baita.

Lana edukitzeak ez du ongizate soziala eta ekonomikoa bermatzen. Hau da, langabezi-tasa EAEn %6,3 eta Nafarroan %8,1ekoa. Baina, bai pobrezia erlatiborako arriskua eta pobrezia larriaren arriskua igo egin da. Zehazki, 2022tik %1,5a igo da.



Iturria: Guk geuk egina EPDS datuekin

Era berean, bizitza duin bat aurrera ateratzeko zailtasun handiak dituztenak daude; hamarretik batek ezin du aisialdiko jardueretan erregulartasunez parte hartu; 10tik 3 zailtasunak dituzten hilabete bukaerara iristeko, Nafarroan, ordez, 10tik 4k.



Iturria: Guk geuk egina EAPNko datuekin

Zer esanik ez item[11] ezberdinei erreparatzen badiogu. Esaterako oporretan joan ezin direnen artean, nafarren %24ak eta EAEko %19ak osatzen dute. Hau da, HEHko bost pertsonetatik batek ezin da oporretan joan. Nafarren kasuan datua jeitsi da, aldiz EAEn %17,7raino igo da. Eta, horretaz gain, bost pertsonetatik ia batek ez du gaitasunik ustekabeko gastuei aurre egiteko.

Egoera zehatzagoetara joz, hamar pertsonetatik batek ezin du etxebizitza tenperatura egokian eduki neguko hilabeteetan.

EGITURAZKO ARRAKALETAZ ELIKATZEN DA SISTEMA

Egiturazko arrakalak dira sistema mantentzen dutenak. Orain arte hartu diren erabaki politikoak ez dira nahikoak izan, eta genero, arraza zein adin arrakala oso nabariak dira jendarte kapitalistan. Esaterako, EAEko errenta pertsonalaren batez bestekoa 26.271€ bada ere, genero-arrakala handia da; gizonena 31.641€koa da, emakumeena aldiz, 21.322€koa da. Lan errentan eta errenta erabilgarrian bietan langa handia dago; ia 10.000€koa hain zuzen ere.

Gaztea izatea badu bere eragina. Pobrezia errealak gazteak kolpatzen ditu gehien; <35 urtekoen artean %6,1, adinekoen %1,7arekin alderatuta.


11 Pobrezia-item-sak pertsona edo etxe batek pobrezia-egoeran dagoen ala ez neurtzeko erabiltzen diren elementu edo adierazle zehatzak dira.

ZAINTZA

Gizarte garaikideak itun berri baterako deia egiten digu, zaintzen zentralitatea ongizate sozialaren funtsezko dimentsio bezala taularatuko duena. Berdintasunean oinarritutako zaintza lanen inguruan antolakuntza justuagoa baten aldeko eskaera alor feministak eman dituen borroken ondorioz finkatzen da.

ZAINTZAREN GENERO ARRAKALAREN ONDORIOZ EMAKUMEAK LANALDI BIKOITZA EDUKITZERA BEHARTZEN DITU

2023ko azaroaren 30eko Euskal Herriko Greba feministan zaintza eraldatzearen apustua egin genuen, zaintzak erdigunean jarri eta banaketa sexualaren amaitzeko. Horren banaketa ez da batere orekatua, eta ondorioz, prekarietateak eta lanaren egungo antolaketak lanaldi bikoitzak hartzera behartzen ditu emakume asko; hala nola, enplegua eta zaintza. Erantzunkidetasunak hobera egin badu ere, emakumeek karga handiagoa hartzen dute oraindik.




Iturria: EUSTAT

ZAINTZEN FEMINIZAZIOA ADIN GUZTIETARA ESTRAPOLATZEN DA

Bada, emakumeek enpleguaz gain, etxeko lanak egitearen arduradun nagusiak dira egun. Baina, zaintzaz ari garenean, ez dugu soilik etxeko lanen banaketaz hitz egiten. Zaintzaren feminizazioa –etxe zein familia– arazo estrukturala da; izan ere, arrakala adin guztietara estrapolatzen da. Estrapolatzeari dagokigu, adin tarte guztietan gertatzen delako. Hau da, bai familia zein etxe lanetan emakumezkoek gizonezkoek baino denbora gehiago inbertitzen dute.


Emakumeek gizonek baino ordu gehiago ematen dituzte egunero etxeko lanetan, adin-talde guztietan. Horrez gain, zaintzan dagoen arrakala esanguratsua izaten jarraitzen du. Esan genezake, etxeko lanei eskainitako orduen konparazioan, emakumeak guztira 2,4 ordu gehiago ematen dute, seme-alaben zaintzan, berriz, 5,1 ordu gehiago.

ETXEKO LANAREN BANAKETA SEXUAREN ARABERA EAE



Iturria: EUSTAT


ETXEKO ADINGABEEN ZAINTZA ORDUAK EGUNEAN



Iturria: EUSTAT

Ondorioz, emakumeak zaintzari denbora gehiago eskaintzen diote gizonekoek baino, egiturazko desoreka mantenduz. Bai, adin guztietan, bai zaintzaren alor guztietan emakumeak dira ardura nagusiena dutenak. Hurrengo zifretan ikus genezake, egunean etxeko lanetan emandako ordu kopuruari dagokionez, bai etxeko lanetan, bai adingabeko seme-alaben zaintzan baita mendeko pertsonen zaintzan, emakumeak direla lan gehien egiten dutenak. Eta hau kontzialiatzeko batzuetan lana uztera derrigortuak dira.

EAEKO LANDUNEN ETXEKO LANAK



Iturria: EUSTAT

EMAKUMEEK GIZONEK BAINO LAU ALDIZ GEHIAGO ETETEN DUTE LAN-IBILBIDEA

Kontziliazioari dagokionez, emakumeek gizonek baino lau aldiz gehiago eteten dute lan-ibilbidea, lana eta familia uztartzeko. Era berean, enplegua eta zaintza lanak uztartzearren, emakumeak izan dira kaltetuenak. Alegia, familia arrazoiengatik eszedentzia edo murrizketa bat eskatzerakoan, emakumeei oztopo gehiago jartzen diete, baita amatasun baimena eskatzerakoan.

Argi dagoena da, zaintza sistemak emakumeen lan ikusezinarengatik sostengatzen jarraitzen duela. Egiturazko errealitate baten deskripzioari dagokio hau. Gizarte patriarkal eta kapitalista batean, bi lan-esparrutan aldi berean aritzen diren baldintza prekarioak baitira; enpleguan dagoen genero arrakala eta zaintza lanetan dagoen desoreka. Egoera hau ez da hautu pertsonalen ondorioa, antolaketa sozial baten emaitza da. Alegia, Eustatek adierazten duen bezalaxe, ordaindu gabeko etxeko lanen balioa EAEko BPGren %28,8 izan zen 2023an.

OSASUNGINTZA


Osasun sistema pribatizatzen ari dira, oinarrizko eskubide baten babes publikoa murriztuz. Interes ekonomikoak lehenetsi dira osasungintzan. Osasun sistemaren hondamena, neurri handi batean, zerbitzuaren kalitatean dago. Sistema defendatzen duten politika publiko ezak, eskubide unibertsala den hau zapuztu eta pribatizazioa bultzatzen dute, zerbitzuaren kalitatearen etengabeko galera dakar.

Egoera hau jakinarazte aldera, hainbat adierazle daudelaren jakitun gara, guk ordea, itxaron-zerrendei eta oheei erreparatuko diegu;


HERRITARREN IA ERDIAK HIRU HILABETE BAINO GEHIAGO ITXARON BEHAR DU LEHEN ZITARA IRISTEKO

Nafarroan, lehenengo kontsulten %44,8ak 90 egun igaro ondoren ematen dira. Hau da, herritarren ia erdiak hiru hilabete baino gehiago itxaron behar du lehen zitara iristeko. Zita kirurgikoei erreparatzen badiogu 10.673 pertsonetatik %57a 0-90 egun artean operatu da, baina gainontzekoen %53a 90 egun baino gehiago egon dira itxaroten, eta %15ak urte erdia baino gehiago itxaron behar izan du.

LEHEN ZITA LORTZEKO DENBORAK



ZITA KIRUGIKOA LORTZEKO DENBORAK



Iturria: Osasunbidea, kudeaketa klinikoko eta ebaluazio asistentzialeko zerbitzua

EAEko datuak ez dira datu hauetatik urruntzen. Izan ere, lehen kontsulten zitak erreparatze aldera, 125.653 zitak egon ziren 56 eguneko atzerapena eduki zuten (bataz beste). Zita kirurgikoen (KIZen) datu orokorrei dagokionez, 2025ean 24.103 paziente egon baziren, 54,19ko bataz besteko atzerapenarekin izan da (EAEn).


3 OHE ERABILTZEN DIRA 1.000 BIZTANLEKO; 2008TIK DATUAK OKERRERA EGIN DU

Funtzionatzen ari diren ospitale-oheak aintzat hartzen baditugu, 1000 biztanleko 3 ohe erabiltzen dira, bai EAEn bai Nafarroan. Datuen arabera, 2008tik behera egin du. Azken urteetako politika publikoek osasun-sistemaren egitura ahuldu dutenaren adierazle nabaria da hau. Ohe kopuruaren beherakadak ez du soilik egiturazko arazo bat adierazten: zerbitzu publikoaren ahultzea eta pribatizazioaren bultzada dira horren atzean dauden joera politikak. Hainbat iturri ezberdinek salatu dute, hain zuzen ere, krisiaren ondorengo aurrekontu-igoerak ez direla nahikoak izan aurreko maila berreskuratzeko, eta oraindik ere,

2009ko mailatik behera gaudela hainbat adierazletan. Izan ere, ohe gutxiago izateak, itxaron zerrendak luzatzea, langileen gainkarga eta zerbitzuen saturazioa ekartzen du.

Aldi berean, egoera honek zerbitzu pribatuetara bideratutako fluxua handitzen da, eta horrek desberdintasun sozialetan eragiteaz gain, eskubide unibertsal ahultzen ari da pribatizazioaren bidean goazen heinean.

02. d



Iturria: espainiar estatuko osasun ministeritza

ETXEBIZITZA

Joan diren azken urteetan, etxebizitza-esparruan sortzen ari den gatazka indartzen ari da hau lortzeko ezintasunaren ondorioz. Jakin badakigu arazoa eskubideekin merkantilizatzen ari direla dira. Ikus dezagun noraino iritsi garen, pertsona ezagunek etxebizitza-merkatuan inbertitzen hasi direla, etxebizitza-espekulatzaile bihurtuz. LABek salatzen duen bezalaxe, etxebizitza eskuratzea lehen mailako arazo soziala bihurtu da, eta langileak pobretzeko arrazoi nagusietako bat.


Indarraldian dauden legeak egoera hau errotik moztetik urrun, etxebizitza merkatu-produktu bihurtu dute. Esparru estatalean Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda – BOE-A-2023-12203 moduko araudiak formalki prezioen kontrola eta alokairuaren inguruko neurriak jasotzen baditu ere, LABen kritikek ohartarazi dute gaur egungo legeek ez dutela eskubide hori bermatzen. Etxebizitza eskubide subjektibo galdagarria izan beharko litzateke, baina gaur egun ez dago hori lortzeko bermerik. Hori da, hain zuzen ere, EAJk eta PSEk higiezinen patronalaren neurrira egindako legea onartu izanaren ondorioetako bat da.

ETXEBIZITZAREN PREZIOA IGOERA ESPONENTZIALEAN DOA

Errealitate hau berresteko datuei erreparatuko diegu. Izan ere, etxebizitzaren prezioak 2015. urtetik igoera esponentziala izan du, bereziki azkenengo hiru urteetan. Urtarrilean iritsi dira jabetzaren preziorik altuenera. 2026. urtearen hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzen batez besteko prezioa 290.000-310.000 eurokoa zen 80 metro karratuko apartamentu tipiko batengatik.


Hurrengo grafikoetan etxebizitzaren prezioaren eboluzioa ikusi genezake, etxebizitza berriak zein bigarren eskuko etxebizitzen prezioa. 2015etik ez da prezioen beherakadarik eman, eta are okerrago, prezioa hamar urteetan bikoiztu egin da.

ETXEBIZITZA-PREZIOEN INDIZEA 2015-2025



Iturria: INE


Prezio orokorra igo diren bezalaxe, metro karratuen prezioak igo egin dira. Prezioa jabetzan eta alokairuan igo arren, bigarren honetan eduki du bereziki eragina. Hala ere, jabetzan m^2/€ EAEn 3322€-ra iritsi da, aurreko urtean baino 232 euro gehiago metro karratu bakoitzeko. Inoiz baino garestiagoa da +11,2% zehazki. Nafarroan, 1.654,6 m2/€koa da, 2018tik prezioa %21,4a igota.



Iturria: INE

ALOKAIRUA JABETZA BAINO GEHIAGO IGO DA: ERRENTAREN %37,7 ERABILTZEN DA ETXEBIZITZA ORDAINTZEKO

Alokairuaren prezioa logika bera jarraitzen du, bataz bestekoa 791€/hileko izanik. EAEn prezioa %3,8 igo da eta Nafarroan igoera are handiagoa izan da, %5,6koa, nahiz eta metro karratuaren batez besteko prezioa EAEko prezioen azpitik mantendu, 11,1 euro/m²rekin; Gipuzkoa (16,4m²/€ko), Bizkaia (14,7m²/€ko), Araba (12,1m²/€ko) eta azkenik Nafarroa (11,1m²/€ko).



Iturria: Idealista

Aurkeztutako datuak errentaren osaeran eta honen gastuen proportzioan eragin zuzena izan du. Funtsean, 2023an guztizko errentaren %37,37a erabiltzen da etxebizitza ordaintzeko. Gastu hau igo den heinean, gainontzeko gehienetan jaitsi egin da, besteak beste; janari eta edari alkoholgabeetan, edari alkoholdunetan, etxebizitza kontserbatzeko gastu arruntetan, garraioan, komunikazioan, irakaskuntzan eta beste ondasun eta zerbitzuetan.

Honek adierazten digu, errenta ez dela etxebizitza bezala igo, baizik eta gastuak gora egin duela soilik. Hau da, errenta modu esponentzialean igo izan balitz etxebizitza moduan, gastuak aurreko urteetako bera izan beharko luke, eta ez proportzioak aldatu etxebizitzan gehiago ordaintzeko.

NAFARROAN EMAKUMEEK SOLDATAREN PROPORTZIO HANDIAGOA ERABILTZEN DUTE ALOKAIRUA ORDAINTZEKO

Gainera, emakumezkoek soldataren proportzio handiagoa bideratzen dute alokairua ordaintzera (%42,5), gizonezkoekin alderatuz (33,7%).

NAFARROAKO HERRITARREK HILEAN ALOKAIRURA BIDERATZEN DUTEN SOLDATA GARBIAREN (%)					
Urtea	€/m2	Batez besteko alokairua (€)	Orokorra (%)	Emakumeak (%)	Gizonak (%)
2011	7,3	584	35,90	43,0	31,9
2012	6,7	536	36,80	44,1	32,1
2016	6,5	520	34,30	41,0	30,9
2019	8,5	680	32,20	36,2	29,5
2020	8,7	696	37,70	43,9	34,3
2021	8,9	712	38,00	43,6	34,7
2022	9,4	752	39,30	43,4	35,9
2023	9,6	768	37,37	42,5	33,7

Iturria: Guk geuk egina INE, Idealista, Nafarroako Ogasun Saila eta NASTAT-en datuetaik.

EAEN SOLDATA GARBIAREN IA ERDIA ERABILTZEN DUTE ETXEBIZITZA ORDAINTZEKO

EAEren kasuan, alokairua ordaintzera bideratzen den soldata garbiaren proportzioa are altuagoa da. 2023an, guztizkoaren %47,8a erabiltzen da. Aurreko kasuan moduan, emakumeak soldata garbiaren proportzio handiagoa bideratzen dute alokairua ordaintzera, %51,9 zehazki (gizonek, aldiz, %45).

EAEKO HERRITARREK HILEAN ALOKAIRURA BIDERATZEN DUTEN SOLDATA GARBIEN (%)					
Urtea	€/m2	Batez besteko alokairua (€)	Orokorra (%)	Emakumeak (%)	Gizonak (%)
2012	10,3	824	36,8	44,1	32,1
2016	10,3	824	34,3	41,0	30,9
2019	11,9	952	32,2	36,2	29,5
2020	12,3	984	39,1	43,5	35,7
2021	12,1	968	47,5	51,9	34,5
2022	12,3	984	46,5	47,7	36,9
2023	13,2	1056	47,8	51,6	45,0

Iturria; Guk geuk egina, Idealista ataria, Eusko Jaurlaritzako Finantza eta Ogasun sailetik

Babes Ofizialeko etxe bat ordaintzeko bataz beste 20 urte behar dira EAEn, etxebizitza librea erosteko, aldiz, 36 urte. Etxebizitza baten ordainketa egiteko soldata garbiaren %30 bideratuko litzatekeela aintzat hartuta, etxebizitza eskuratzeko zenbat urte beharko liratekeen kalkulatu dugu. Ondorioak jarraian aurkezten den taulan jasotzen dira. 2023an, babes ofizialeko zein etxebizitza sozialen metro karratuaren prezioa nabarmen igo zen, eta horrek 20 urte inguruko epea eskatzen du horrelako etxebizitza bat erosi ahal izateko. Metro karratuaren prezioaren bilakaeran oinarritutako azterketaren arabera, etxebizitza librea eskuratzeko behar den denbora bi urte murriztu da (36 urte).


Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da kalkulu honetan ez direla barne hartu hipoteken eskuragarritasunari lotutako baldintzak, ez eta interes-tasen gorakadak ere. Horren harira, deigarria da beharrizan handiena duten herritarrentzat pentsatutako alternatiba, hala nola babes ofizialeko eta etxebizitza sozialen prezioak, merkatu librekoen gainetik garestitu izana.

EAEKO ETXEBIZITZEN PREZIOAK (MILA EURO)					
Urtea	Babes ofiziala/ Sozialak	Libreak	Bataz besteko soldata garbia	BO eta etxebizitza sozialak ordaintzeko bataz besteko urteak	Etxebizitza librea ordaintzeko bataz besteko urteak
2008	108,1 M/€	337,2 M/€	20.348,29 €	17,71	55,23
2012	114,5 M/€	302,2 M/€	21.135,61 €	18,05	47,67
2016	130,4 M/€	253,5 M/€	21.613,58 €	20,11	39,10
2019	134,4 M/€	289,1 M/€	23.183,04 €	19,32	41,57
2020	131,1 M/€	303,4 M/€	23.266,24 €	18,78	43,46
2021	130 M/€	302,1 M/€	24.433,00 €	17,74	41,21
2022	191,4 M/€	293,8 M/€	25.416,00 €	25,10	38,53
2023	164,4 M/€	302,7 M/€	28.049,94 €	19,54	35,97

Iturria: Guk geuk egina, INE eta Eusko Jaurlaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailetik.

ETXEGABETZEEN HIRU LAURDENA BAINO GEHIAGO ALOKAIRUENGATIK IZAN DA

Azkenik, desjabetze eta etxegabetasunari buruzko datuak behatuko ditugu analisia konplexuagoa izan dadin. Aldez aurretik, nabarmendu nahiko genuke jakitun garela etxegabetze asko ahozko akordioen bitartez egiten direla, eta, ondorioz, iturri ofizialek eskainitako datu kuantitatiboak ez direla errealak, eta epaile batek beteararazten dituenak direla hauek. Hala ere, datuetan gorakada handia hauteman genezake. Errekor historikoak ez dira soilik etxeen prezioetan lortu, desjabetzeetan baita. Bai jabetzarengatik bai alokairuagatik burutu diren etxegabetzeak igo dira nabarmen.



Iturria: botere judizialen kontseilu nagusia

Honekin guztiarekin, adierazi nahi dugu etxebizitzaren auzia oso larria dela. Zuzeneko eragina du langileen bizi baldintzetan zein erosahalmenean. Behin eta berriz errepikatu dugun bezalaxe; etxebizitza eskubide unibertsala izan behar da, eta merkatuaren logikatik urrundu. Administrazioak espekulazioarekin bukatzeko –edota mugatzeko– aukera badu ere, beste alde batera begiratzen du. Errenta osoaren %35,8 izateak, norbanako bizi baldintzak kaskartzen ditu, beste eremuetan inbertitzeko denbora/dirua desagertzen delako. Ongizatearen eta lanaren egonkortasuna mugatzen dute. Gainera, bizileku-segurtasunik ezak areagotu egiten du lan-esplotazioaren aurreko zaurgarritasuna.

Argi dagoena da, aberastasunaren banaketa ez bada langile klasearen ikuspegitik egiten, ez dela modu ekitatiboan izango. Langile klaseak kreatzen duen gainbalioa sortzen du aberastasunaren metaketa, ondorioz, sortutako metaketaren banaketa klase ikuspegitik egin behar da, arrakalak desagerrarazteko eta bizitza duin bat bermatzeko.